

Iker Zubeldia Katarain

Zure sorterritik

Zu jaio zinen baserri zaharrak
negarrez dauzka harriak
beste ikur bat falta du orain
Arretxeko armarriak
inspiratzeko aina emari
isurtzen du sorterritik
filosofia usaina dauka
Ugatseko iturriak.

Txilio hotsez jolastu ohi da
gazte garaian enara
adinarekin bakartuko da
esan zenigun erara
kasu batzutan izadia da
izakiaren islada
izan nahiean gabiltza baina
hain desberdinak ez gara.

Lorategirik ederrenetan
irtetzen dira asunak
alde egiten utzi lezake
ama baten maitasunak
nahiz eta zerbait ikusi zuen
joaten utzi zizunak
Alemanira jarraitu zizun
zure zegamartasunak.

Euskaldunago egin zintuen
lurrarekiko joskerak
zure eskutan zegoen luma
zorroztu zuen dezterak
zure aitaren etxeak baino
zure amaren euskerak
beleon lumak harrotzen ditu
zure mundu ikuskerak.